

EUSKAL PROTESTALDIA ETA DEMOKRATIZAZIOA. DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA “LIZARRA-GARAZIKO” KASUAN (1995-2000)

Tesiaren egilea: Galder Sierra Zapirain

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Politika eta Administrazio Zientziak

Tesi-zuzendaria: Mario Zubiaga Garate

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi honek gure historia hurbilaren pasarte zehatz bat aztertzen du: 1998ko irailean Lizarran, lehenik, eta Donibane-Garazin, ondoren, sinatu zen Lizarra-Garaziko Akordioaren testuinguru politikoa, hain zuzen. Alde horretatik, gure arretagune nagusietako bat 90eko hamarkadaren erdialdean euskal politikagintzan emandako aldaketetan kokatu dugu. Hamarkadaren hasieran Ajuria Eneko Itunak ezaugarritzen zuen «demokrata eta biolentoen» joko-zelaitik, urte batzuk beranduago Lizarra-Garaziko Akordioaren eskutik nagusitu zen soberanista eta konstituzionalisten artekoa azaltzen saiatuz.

Zentzu horretan, gure hipotesi nagusia da ordura arte abertzaletasunaren baitan autogobernuan edo burujabetzan (eta horri lotuta bakegintzaren arloan) aurrera egiteko indarrean egondako bi eredu nagusien agortze-zantzuek aldaketa hauek eragin zituztela. Izan bide autonomistarena, izan ezker abertzalearen «estrategia negoziatzailearena». Gainbehera horietan, bestelako erreferentziei erantzuten zieten saiakerak beren lekua aurkitzen joan ziren. Adostasunezko eruedetan nagusitu ohi den instituzionalismoaren mugetatik harago, baina antagonismoaren muturreko adierazpideak baretzen saiatuz. Horrelako prozesuetan, aldiz, aktoreen identitatea jokoan egongo den aldagai nagusietako bat izango da; gehiegizko eskuza-baltasunak besteak norbera irenstera eraman dezakeela jakinik, baina gehiegizko zurruntasunak kategoria berri zabalagoak ezinezko egingo dituela argi izanik.

Ikuspegi teoriko batetik, bi oinarrien gaineko arreta jarri dugu bilakaera hau ulertzeko. Batetik, Zientzia Politikoa gaurkotatzen duen hegemoniaren kategoriari azalpen metodologikoa ematen dion Diskurtsoaren Teorian. Eta bestetik, ekintza kolektibo gatazkatsuen (*politics contentious*) azalpenaren *agenda berria*. *Hitzaren* eta *ekintzaren* arteko harreman katramilatsu honetan forma hartzen baitu boterearen eta, ondorioz, politikaren inguruko lehiak.

Era berean, aztergai izan den epealdia (1995-2000) protesta-zikloei egotzi ohi zaien parabola formako bilakaeran kokatu nahi izan dugu. Joan den mendeko 50eko hamarkadaren hondarretan hasi eta azken urteetara arte luzatu dena. Alde horretatik, gure ikerketak bost urtetik haragoko ikuspegi luzeagoari heltzen diola esan dezakegu, Lizarra-Garaziko Akordioa testuinguru zabalago batean lekutuz eta bere ondorengo eraginaren azterketarako tresnak eskainiz.

Zentzu horretan, Charles Tilly-k demokrazia lantzen duen adiera oso presente egongo da gurean; une finko bat bezala ulertzen duen ikuskera bezala baino areago, etengabeko atzera-aurrerako garapenean dagoen prozesu bezala ulertuz. Eta bilakaera horretan prozesu honen gako nagusietako bat azalduko zaigu. Izan ere, gertatutakoari ertz oso ezberdinetatik begiratu badakioke ere, gure ustez, ikuspegi teoriko batetik, Lizarra-Garaziko Akordioak, beste ezeren gainetik, burujabetzaren aldeko indarren artean demokratizazioa ulertzeko nagusi ziren paradigma edo adiera ezberdinen arteko lehia azalerratu baitzuen.